




Txubio Fernandez de Jauregi, La Monstrenka aretoan. Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

infraganti TXUBIO FERNANDEZ DE JAUREGI

Aktore arrakastatsua da, nahi zuena egiteko astia lortu zuelako, estutasunak gorabehera. Txubio Fernandez de Jauregi gasteiztarrak hiru hamarkadatik gora daramatza Euskal Herriko eta Europako agertokietan umorea eta zerbait gehiago eskaintzen, bere aktore eta sortzaile lana.

Antzerkiak nola-bait zentzua eman dio bere bizitzari, bere pertsonalitate anitzak agertze-ko aukera eman baitio. «Gero, beti pertsonaia bera egiten duzula ematen badu ere!», dio barrez. Edonola ere, oso dibertigarria iruditzen zaio «jolaserako auke-

ra» hori Txubio Fernandez de Jauregi aktore gasteiztarrari.

Kale antzerkiarekiko grina berezia du. Oraindik ere egiten du, gogokoa baitu jendeari zerbait eramatea, doan. Antzerkia iritsi ohi ez den lekuetara eraman izan du Txubiok bere kale antzerkia urte askoan, Trapu Zaharra taldearekin batez ere. «Leku sinestezi- netan izan gara», ijito auzoetatik

Jugoslavia ohiko iheslari esparruetara. Kale antzerkiak lekuri- xumeen eta marjinalenetara hurbiltzeko aukera ematen duela dio, eta hori gogobetegarri du.

Frankismoaren ondoren hurbildu zen Txubio antzerkira. Gogoan ditu urte haietako Gasteiz-ko Nazioarteko Antzerki Jaialdia eta Denok kooperatiba. Urtean zehar oso programazio ona eramaten zuten Gasteizko Florida antzokira, eta 18 urte eskaseko mutil hura obra haiekin katigatu zen, horregatik sartu zen La Farandula talde amateurrean. Taldeko kideak lanetik irtendakoan elkartzen ziren entsatzeko, ikas- teko. Eta Txubiori «zerbait bita- la» bihurtuko zitzaion.

Bere lagun bat moto istripuz hil zenean, nahi zuena egiteko astia behar zuela pentsatu zuen, honako gogoeta hau eginda: «Eta hilko zaituen istripuak lanean harrapatzen bazaitu?». Hain zu- zen ere, «ahal duzun neurrian nahi duzuna egitea» da arrakasta Txubiorentzat, «gutxi gorabehe- ra nahi duzuna egin eta horrekin bizirautea». Eta batzuetan porrot egitea ere txarra ez den uste osoa du, berak ikuskizun batekin izan- dako porrotetik «arrakastatik» baino gehiago ikasi izan duela baitio. Bere egiten ditu, hortaz, Becketten hitzok: «Porrot egizu berriro, porrot egizu hobeto».


Edonola ere, Txubio inoiz ez da ospe eta dirutza gisa ulertutako arrakastaren bila ibili. Jendeak te- lebistatik ezagutzen du gehien- bat, eta bertan lanen bat egin duenean, jende askok geldiarazi izan du kalean. Hasieran horrek gainezka egiten zion; hala ere, ez omen zuen molestatzen: «Ni ere jendearen etxeetara sartzen bai- nintzen abisatu gabe, afaltzen ari zirela. Baina hasieran harrigarri samarra gertatzen da». Jendeak bitartekoa, kasu honetan telebis- ta, balioesten duela dio. «Telebis- tan bazaude, balio duzula uste du, eta batzuetan ez da horrela», dio, gaur egun telebista gutxiago ikusten dela uste badu ere. Azke- naldian ETBn Txubiok orain dela zortzi urte egindako zenbait es- ketx ematen ari dira, eta zenbait lagunek «ondo doakizu, e?» esa- ten diote, «baina nik horretatik ez dut ezer kobratzen, halako

kontratua egin genuen eta!». Bi- tartekoa arrakasta edo porrota neurtzeko erabiltzen dela dio, «baina hori faltsua da. Itxurake- riaren gizartean bizi gara».

Ez da nork deituko zain egoten, ezta diru laguntzak noiz ailegatu- ko zain, baldin badaude, oso zaila baita lortzea. Uste du ekin beha- rra dagoela, gauzak egin. Horre- gatik, Txubiorentzat inurriek be- zala sasoi txarretarako zertxobait aurrezteko aukera ere bada arra- kasta. Estutasunean bada ere, irauteko aukera delako. Azkenal- dion, zeregin horretan urte mor- doa daramala pentsatu izan du, eta beste hainbatek bezala gu- txienez urte sabatikoa hartuko lukeela, baina ezinezkoa du. Be- rak argi du jarraitu behar duela, «suertez, gainera, jarrai dezake- zulako».

Nahi zuena egitea erabaki eta, lana utzita, Hordago konpainiara sartu zen 80ko hamarkadan. Be- re prestakuntza osatzen jarraitu zuen Gasteizko Antzerki Eskolan, Alfonso Sastrearen dramaturgia ikastaroetan, zirku teknikak ikas- ten, ahots edo entrenamendu fi- sikoko ikastaroak egiten... Ondo- ren Galizian ibili zen konpainia batekin, gero Italian eta beste hainbat lekutan, antzeztan eta prestakuntza hobetzen, batetik bestera, «antzerkiak zaramatzan lekuan». Duela urte batzuk berri- ro Gasteizen finkatu zen, noiz- behinka denboralditxoren bat kanpoan ematen badu ere.

«Krisia hasi zenean, eta ez da- kit noiz hasi zen, denbora luzea joan da ordutik-eta, sinesgaizta- sun sentimendua izan nuen ha- sieran. Jendeak esaten zuen: 'ez da posible hau guri gertatzea, hau beste leku batzuetan gerta- tzen da, baina gu ondo geunden'. Ba, ez, izorratu gaituzte, kapita- listek ziria sartu digute, txiki-txi- ki egingo gaituzte. Baina ezin za- ra kexu hutsean geratu, horrela ikusten nuen nik». Jason Gerra, Andres Bezares eta Jon Elolarekin batera Monstrenko Kolektiboa abiatu zuen garaiaz ari da Txu- bio. Beren lehen ikuskizuna gaz- teen lonja batean egin zuten. Obra bat zuten, baina ez antzez- teko lekuri, eta bazekiten teatro batean ez zituztela kontratatuko; beraz, euretako baten anaia gaz-



«Zatoz beste inon egingo ez zenukeena egitera». Horra Mostrenko Kolektiboaren gonbita Gasteizko Antepara kalean duten lokala ezagutzeko. Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

tearen kuadrillak Gasteizko auzo batean lonja bat zuenez, eskatu egin zieten, pare bat egunetarako. Gabon osoak eman zituzten obra harekin, jende asko joaten baitzen emanaldietara, «gauza arraro samarra zen arren».

Ondoren lokal bat alokatu zuten, gaur egun Antepara kalean dutena, entseatzen jarraitzeko eta asmo handirik gabeko gauzak egiteko. Hainbat sentsibilitatetako jendea biltzen da lokal horretan, entseatzen, tailerrak egiten, talde batzuek publiko aurreko saioak ere egiten dituzte probatzeko, noizbait kontzerturen bat ere izaten da... «Auzoa egitea» da asmoa, inguruko jendeak gustuko badu, zerbait ikusi nahi badu, bertara joan dadin. Azken batean, pentsatu zuten garrantzitsua goa dela zirkulu hurbilak sortzea. «Merkatuan borrokan ibili beharrean, hobe gauzak egin eta sustatzea zirkulu txikitik, horiek hobeto aprobetxatzen dituen jendea baitago». Txubiok bertan «zentzugabeko ideiak» gauza ditza; esate baterako, ezinezko

proiektuak, horrela iragarrita: «Zatoz beste inon egingo ez zenukeena egitera».

Mosntrenko Kolektibokoa ez ezik, aktore gasteiztarra L'alakran eta Zanguango taldeetako kide ere bada. L'Alakran konpainia Irungoa da berez, baina, proiektuak aurrera ateratzeko zailtasunak tarteko, Suitzara jotzea erabaki zuen, hango kultur politikak proiektuak aurrera ateratzea errazten baitio. Taularatu duten azkenengo lana «La conquista de lo inútil» da.

Gogoa, berotasuna berreskuratu beharra sumatu zuten 50 urtetik gorako hiru lagun elkartu ziren, gogoa, garra oso garrantzitsua baita, Txubiok dioenez, ezin baitira nekagarri agertu

«Leku sinestezinetara» eraman du antzerkia. Kale antzerkiak lekurik xumeen eta marjinalenetara hurbiltzeko aukera ematen duela dio, eta hori gogobetegarri du

Zinema eta antzerkia lengoia desberdinak direla uste du. Zinema gogokoa du eta errespetu handia dio, baina, bere ustez, ez du publikoarekiko momentu errepikaezina

jendea, gazteak bereziki, antzerkira hurbiltzea nahi badute. Eta gogoa, garra berreskuratzeko zer behar da? «Gauzekiko, ingurua- rekiko jakin-mina». Eta hori ez zutela galdua ikusita, alferrikakoa konkistatzera abiatu ziren.

Normalean sorkuntza kolektiboan jardun izan du Txubiok.

Idea batetik abiatu eta ekarpen prozesu bat egiten dute, eta, ondoren, publikoarekin, azken doikuntzak egiten dituzte. Idea batetik istorio baterainoko bidea. Edo kontatzeko moduak aurkitzen saiatzen dira.

Orain Zanguangorekin obra bat sortzen dihardu. «Nik ez nuen hau espero» esaldia hartu eta hortik abiatuta hasi dira lane-

an. Zenbait laguni esaldi horrek zer iradokitzen dien galdetu die, materiala biltzen hasi dira, eta, zerbait ikusten dutenean, entseatzen hasiko dira, eszenan bildutakoa askatzen joango dira eta istorioa sortzen. Ez dute aktorearen ohiko papera egiten, testu bat jaso eta halako pertsonaia antzetzu, eraiki egiten dute pertsonaia, haren testua barne. «Zure lagunentzat lan egiten duzu, zuek zerbait hurbilagoa da, benetakotasun handiagokoa, eta zu horren guztiaren motorra zara».

Txubio umorearekin identifikatzen den aktorea da, nonbait. Baina ez du umorea bakarrik egin. Berak ez dio umoreari uko egiten, ezta hurrik eman ere, baina umorerik gabeko lanetan zein umoretsuetan, osagarri gehiagoko istorioak kontatu izan ditu, batzuetan halako poetika duten obrak. Umorea gauzak kontatzeko modu ona dela uste du, modu astunean egitea baino hobe, baina «abusatu gabe eta umore motaren arabera», eta beste gauza batzuei uko egin gabe. Umorea ez da berarentzat premisa bat, ez da betebeharra. Sekula ez dute aldeztu aurretik esaten obra batek barre eragin behar duela; hala ere, askotan bururatzen zaizkien egoerak barregarriak direla konturatzen dira eta erabili beharrekoak.

Zineman ere lan batzuk egin izan ditu, normalean lagun baten horrela eskatuta. Eta gogokoa du, baina «kontrolatzen» ez duen mundua omen da. Korapilatsua iruditzen zaio ordezkarietara eta ibili beharra. Hala ere, errespetu handia dio zinemari. Antzerkia eta zinema lengoia desberdinak direla uste du, «ez baita gauza bera makina bati hitz egitea edo jendeari hitz egitea». Eta zinemak ez du antzerkiaren «momentua», publikoarekiko une errepikaezina. Obra bat, askotan antzetzuta ere, «hurrengo egunean ez da berdina izango».

Txubio Fernandez de Jauregi, bera dibertituz jendea dibertitzen dakien laguna. Baita pentsatzen eta pentsarazten dakiena ere, GAUR8rekiko solas ezin atseginagoan erakutsi duenez. •

Xabier Izaga Gonzalez